



KATARATA KIRURGIARAKO PRESTATZEA

Zure hurrengo ebakuntza dela-eta, honako gomendio hauei kasu egiteko eskatzen dizugu:

- Ospitaleko Harrera Zerbitzuak aldez aurretik jakinaraziko dizu ospitaleratzearen eta ebakuntzaren eguna eta ordua.

>Ebakuntzaren aurreko egunetarako gomendioak:

- Ukipen-lenteak erabiltzen badituzu, kirurgia baino 48 ordu lehenago ken itzazu.
- Sukarra, hotzeria edo kirurgia eragozten duen osasun-okertzeren bat baduzu, jarri harremanetan Kirurgia Programazioko Zerbitzuarekin, Tel.: 945007664.
- **GLP-1 BLOKEATZAILEA** hartzen baduzu:
 - Pilula/injekzioa egunero (semaglutida: Rybelsus®; liraglutida: Victoza®, Saxenda®): kendu ebakuntza egin baino **48 ordu** lehenago.
 - Asteroko injekzioa (dulaglutida: Trulicity®, semaglutida: Ozempic®, Wegovy®; tirzepatida: Mounjaro®): kendu gutxienez 7 egun lehenago (ez jarri aurreko asteko dosia).
- Gogoratu kirurgia honetan ez dela beharrezkoa farmako antiagregatzaileak/antikoagulatzaileak kentzea, oftalmologoak berriaz adierazi ezean.

>Ebakuntzaren egunerako gomendioak:

- Aipatutako egunean eta orduan joango zara Harrera Zerbitzura (ate nagusia) ospitaleratzeke, eta honako hauek **ekarri beharko** dituzu:
 - Ebakuntza egiteko eskaera-orria, eta, baldin baduzu, NANA eta osasun-txartela,
 - normalean hartzen duzun medikazioa,
 - hortzordea edo audifonoa, baldin baduzu, txapinak,
 - **laguntzaile bat** (ezinbestekoa) eta etxera buelta antolatuta izatea, ezin izango baituzu gidatu.
- **Ez duzu** azazkalen esmalterik, erlojurik, bitxirik, makillajerik **ekarri behar**.
- Higiene pertsonal egokia egin, infekzio-arriskua gutxitzen baitu.

Ebakuntza GOIZEAN egiten bada:

- Ospitaleratu aurreko gauean **afari arina** hartu ahal izango duzu **24:00ak baino lehen**. Ondoren, **ospitaleratu baino 2 ordu lehenagora arte hartu ahal izango duzu ura**. Ez gosaldu.
- **Zure ohiko medikazioari dagokionez:**
 - ✓ Hartu **goizeko medikazioa** (tentsioarena, bihotzarena, arnasarena...) ur zurrupada batez; EZ ETEN, baina:
 - ✓ **Diabetikoa** bazara:
 - EZ hartu diabeteserako pilularik goiz horretan; eta pilulak metforminarekin hartzen badituzu, EZ hartu ebakuntza egin baino 24 ordu lehenago.
 - Intsulina hartzen baduzu:
 - Azkarra (Actrapid ®, Novorapid ®, Apidra ®, Humalog Kwikpen ®) edo mistoa (Mixtard ® edo Humalog Mix ®), EZ hartu goiz horretan,
 - Motela (Lantus®, Levemir®, Tresiba®, Toujeo®) osagarria goizean, hartu dosiaren % 70 (ohiko dosia x 0.7= UI).
 - Etxera itzultzean, ohiko tratamenduari ekingo diozu, otorduarekin batera, salbu GLP-1 blokeatzaileak hartuz gero, horrelakoetan 48 orduren buruan hartuko baituzu.

Ebakuntza ARRATSALDEAN egiten bada:

- **Gosari arina 09:00ak baino lehen**. Ondoren, **ospitaleratu baino 2 ordu lehenagora arte** soilik hartu ahal izango duzu **ura**.
- **Zure ohiko medikazioari dagokionez:**
 - ✓ Hartu **goizeko medikazioa** (tentsioarena, bihotzarena, arnasarena...) ur zurrupada batez; EZ ETEN, baina:
 - ✓ Eta **diabetikoa** bazara:
 - Utzi metformina duten diabeteserako pilulak ebakuntza egin baino 24 ordu lehenago. Beste pastilla batzuk hartzen badituzu, ez hartu egun horretan.
 - Intsulina motela hartuz gero (Lantus®, Levemir®, Tresiba®, Toujeo®) osagarria goizean, hartu dosiaren % 70 (ohiko dosia x 0.7=.....UI).
 - Etxera itzultzean, ohiko tratamenduari ekingo diozu, otorduarekin batera, salbu GLP-1 blokeatzaileak hartuz gero, horrelakoetan 48 orduren buruan hartuko baituzu.